

# Euskal Hiri ikusezina



Inhar Agirrezabal °

*cercare e saper riconoscere chi e cosa, in mezzo all'inferno,  
non è inferno, e farlo durare, e dargli spazio*

Menditik jaitsi zara lagun, Mari eta kideak,  
bakardadea, urruntasuna, atzean utzita.

Bi ibaien azkenetako meandroen loturan marraztutako lerroen albo bietan harriz betetako kale-arteak aurkitu dituzu; urrunetik bi orratz, zatoz zurera deiadarka. Muinotik abiatuta lautada osoa bere egin nahi duten teilatu-itzalak ikusi dituzu; eguzkiak eta zuhaitzek bat egiten duten eremuetatik, hau da, zurea entzunez. Itsasoa lurrarekin jolasten ari zela trena lagun iritsi zara; mugetan hautsitako laukizuzenezko bilbearen barrenetik ozen oihuka duzu, hondartza. Ibai ertzeko atea zeharkatuz karrikan gora egin duzu galtzada harriei xerka; ateburu eta leiho atzeko gortinen begiradez, kalezuloen babes-irrintziak deituta.

Gaztelua zelatatzen duen plazatik zubira jo duzu, ibaian gora hazi baino etsi egin duen amuarraingaren gisara; plaza zelatatzen duen gaztelua ari da zutaz galdezka. Ibai zabalaren erriberan elkartutako eraikin amaigabeen artean zabilta; lehen asko orain bat, lehen batzuk orain, akaso, gehiegi; eta urteetan bizkarra eman arren orain aurpegiratzen dizu hurbiltzeko. Harresiak gainditu dituzu, goi-lautadaz gaindi leku hitsenak zirenetan ere etorbide naroetan zabilta egun; gehiegi handitzearren hiri izateari utziz herrira itzuli da, baina zu, gehien, lurpean eraitsi zuten hark erakartzen zaitu.

Etzetik jaitsi zara, etxera igo zara;  
jendartean ez da Mari, adreilu artean ez  
da kiderik; bakardadeak, urruntasunak,  
kalean, etxean, harrapatu zaitu. Nonbait  
aurkituko zara.

Bokaletik gora datorren lanbroak eraikia da hiria; duela zenbait hamarkada hura bezala eskola haurra zenean bazkal ostean egiten zuen ibilbidea bere ilobari kontatzen dionaren, agurearen, laguntzaz. Poltsaz gainezka dituen eskuekin babestu ezinean aurpegian jotzen duen mendi elurtuetako haize finak ematen dio bere eitea hiriari; bitartean udaberria iristean kidearekin hastera doan bizitza berriaren ametsek apainduta. Eserita daudela oso urrundik bailitzan iritsitako kresal-usainak eusten dio hiriari; denbora egin dute elkarri ezer esan gabe, begiradak aski dira, maitasuna eta zoriona biren arteko une bateko kontua soilik ez delakoaren sendotasuna lagun. Aspaldi eraitsiak izan arren bihar ere entzungo den fabriketako hotsaren erritmora hazia da hiria; hamaiketakoaren orduan irri artean oraindik eskuz esku dabilen zahatoaren konpas malguekin. Azokatik etxera bidean inoiz iritsiko ez diren ale eta puskez betetzen da hiria; gaua kartoi artean egingo duenaren zuloak hura hustu ezinik.

Zalantzaz, bestaldetik, keinu bat egin dizu.  
Oraingo honetan, ordea, ez diozu zure bideari  
jarraituko hiri honetakoa ez zaren arren; kaleak,  
farolak, zaborrontziak, hostoak, ezagutzen ez  
dituzun arren.

Hiria eszenografia soil bat da zure bizitzaren antzerkian; mihise honen gainean marraztuko dituzu zure irriak, zure jolasak, zure negar eta zoriona.

Zu zara hiriaren eszenografia hark bizitzen, hazten, konkistan, xahutzen jarrai dezan; atrezzo humanoaren mugek eta ezintasunek baldintzatutako aktore kaxkar baten azken agerraldiaren gisan.

Hiria eszenografia, aktorea eta zuzendaria ere bada egun; ahaztu zaio, jada, nork sortu zuen, zertarako, zergatik. Hiritarrak irensten ditu gupidagabe; haiek gabe ere hiriak biziraungo duela sinetsita.

Etxeen eta jauregien, kioskoen eta zuhaitzen, autoen artean aurkitzen da hiria; hauez gaindi. Hiria baldintzatzen uzten diegun neurrian soilik baldintzatuko dute gure hiria; etengabe, eraisketez, uneoro, eraikitzen dugun hiria. Jauregi eta autoen neurrira eraikitako hirietan ezin kabitu; hirietan beste eskala batean jardun behar omen, menditik jaistean zu neurritz kanpo haziko bazina lez.

Abia dezagun bidaia bat inoiz izan ez garen hiritik, izan gareneko haiek oraindik ase ez gaituztelako; iritsi nahi dugun, oraindik izan ez garen, hirira irits gaitezen, ase gaitezen. Kontatu iezadazu zer aurkitu duzun bertan; zure bidaia gaur bertan hasia izango balitz, zein hiritan hartu nahiko zenuke ostatu?

Gure hirian neguan ez da hotzik, ez gosarik; traje gorbata zein jaka urratuak formen jolas honetarako apaingarriak besterik ez dira, galdua dute eman nahi izan dioten esanahi makurra. Bertan lerro zuzenak salbuespen dira; oker marraztutako bihurtuak gisan, eta planifikazioa etorkizuna baldintzatu gabe oraina asetzeko plano aldakor bat besterik ez da. Autoek aldirietan hartuko dute ostatu, bizitzatik aparte eta lo dauden auzuneetan. Ate eta hesolagileak bakardadeari monumentua eraikitzen ariko dira, hura zer izan zen gogoan izan dezagun, eta askatasuna sukalde guztietara hegaz sartuko den bidaia-laguna izango da.

Zu zaren guztietan sortzen duzu leku bat. Leku batek zu, zu bakarrik, zu osorik, behar zaitu. Lekuak galdutako hirientzat sortu hiriak lekuetatik, eraiki lekuak leku gabeko eremuetan; eraiki hiriak hiri gabeko eremuetan. Inoiz gehiago asfalto, adreilu, altzairu, hormigoi, beira eta zeramikazko anabasa pilatuak hiriaren arima gatibu har ez dezan; zure arima gatibu har ez dezan.

Ukitzen duzun hiriak ez du inolaz hiri ikusezina baldintzatzen, marrazten, biziartzten, zure ametsetako hiri ikusezinak ikusgai tai gabe sortzen duen neurrian.

*Finché ogni forma non avrà trovato la sua città,  
nuove città continueranno a nascere.*